

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Loraldia Koop Elk. Txikiaren arteko hitzarmena, Iruñaldia 2025 kultur programazioa garatzeko

Convenio entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Loraldia Koop Elk. Txikia para el desarrollo de la programación cultural Iruñaldia 2025

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana Olo Hualde andrea, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilaria, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz.

Bestetik, Loraldia Koop Elk. Txikia, egoitza Bilboko Agoitz plaza 1, (48015) eta IFZ: F72501323 duena; eta haren izenean eta ordezkartzen, Mikeldi Uribe-Etxebarria jauna, NAN zk. [REDACTED] duena eta Loraldia Koop. Elk. Txikiko koordinatzailea dena. Erakundearen estatutuetan ezarritakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalorde nahikoa du.

Parte-hartzaileek, duten ordezkari gisa eta adostasunez, hitzarmen hau sinatu dute Iruñaldia 2025 kultur programazioa garatzeko.

A) XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Loraldia Koop Elk. Txikiaren arteko oinarri orokorrak ezartzea, Loraldiak sustapen proiektua garatu dezan eta euskararen normalizaziorako bidean egitasmoak antolatu ditzan.

REUNIDOS

De una parte, D^a Ana Olo Hualde, Consejera del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra, en virtud de las competencias otorgadas por el Decreto Foral 239/2023, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera del Gobierno de Navarra.

De otra parte, Loraldia Koop Elk. Txikia, con sede en Agoitz Plaza 1, 48015 Bilbao y NIF F72501323, y en su nombre y representación D. Mikeldi Uribe-Etxebarria DNI [REDACTED] coordinador de la entidad Loraldia Koop. Elk. Txikia, con poderes suficientes para la celebración de este acto en virtud de lo establecido en los estatutos de su asociación.

Los intervinientes, en la representación que ostentan y de mutuo acuerdo, formalizan el presente convenio para el desarrollo de la programación cultural Iruñaldia 2025.

A) OBJETO

El objeto del presente convenio es establecer las bases generales de colaboración entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Loraldia Koop Elk. Txikia, para que dicha asociación desarrolle su proyecto de promoción y organice proyectos en el camino hacia la normalización del euskera.

Dirulaguntza hori erabiliko da Loraldia Koop Elk. Txikiak bideratzen duen Iruñaldia 2025 egitasmoa garatzeko.

B) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1.- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa

2.- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa. Foru lege horren 1.2 artikuluan ezartzen da zein diren Foru Legearen helburu nagusiak, euskararen ezagutzari, erabilerari, berreskurapenari, garapenari, sustapenari, eta erabilerari eta irakaskuntzari dagokionez, borondatezkotasun, gradualtasun eta errespetu irizpideen arabera Nafarroan euskarak duen errealitate soziolinguistikoarekin bat.

3. 240/2023 Foru Dekretuak azaroaren 15ekoak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituenak eginkizun hauek esleitzen dizkio, besteak beste: euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

4. 2023-2027 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak honakoa jasotzen du, besteak beste: euskara sustatzea komunikabideen arloan, helduen euskalduntzean eta gizarte eta kultura bizitzan, batik bat gazteei zuzendutako programetan.

C) HITZARMENAREN IRAUPENA

La subvención se destinará al desarrollo del proyecto Iruñaldia 2025, promovido por la Loraldia Koop Elk. Txikia.

B) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

2.- La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, que en su artículo 1.2 establece los objetivos esenciales de la misma: el derecho a conocer y usar el euskera; su recuperación, desarrollo y fomento; y la garantía de su uso y enseñanza con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, y de acuerdo con la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.

3. El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, le asigna estas funciones, entre otras: realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2023-2027 recoge, entre otros, el compromiso de "fomento del euskera en los medios de comunicación, enseñanza del euskera a personas adultas, vida social y cultural, de manera especial programas dirigidos a la población más joven".

C) DURACIÓN DEL CONVENIO

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2025eko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagunduko diren gastuak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sorrarazitakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

Hitzarmen honen kontra egin ahal izanen du aldeetako edozeinek, hitzarmenaren epemuga baino hiru hilabete lehenago.

D) AURREKONTUA

2025erako aurrekontua 20.000 eurokoa izango da, 2025ko Aurrekontu Orokorren B30002 B3200 4819 334120 "(E) Loraldia Elk. Txikiarekiko hitzarmena Loraldia-Iruñaldia hurrengo edizioa bultzatzeko" izeneko partidaren kargura.

E) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK

Diruz laguntzen ahalko dira Loraldia Koop Elk. Txikiak antolatutako Iruñaldia 2025 egitasmoaren garapena:

Aza 9: *Harreman. Gayarre*
Aza 10: *Liburu aurkezpena. Elkar*
Aza 11: *Eduardo Valencia, Karriki*
Aza 12: *Lekeitiokoak, Katakarak*
Aza 13; *Bi zakur Gaztelu Plazan, Laba*
Aza 13: *Mursego, Condestable*
Aza 14: *Ikimilikiliklik, Baluarte*
Aza 14: *3001 odisea, Geltokin*
Aza 15: *Aiurri, Udaleko plazan*
Aza 15. *Hitzaurrea, Kalerik kale*
Aza 15: *Olaia Intziarte, Gayarre*

Diruz lagunduko diren jarduerak hauek izanen dira:

- Komunikazio plana osatzea
- Produkzioa plana gauzatzea
- Zuzendaritza artistikoa

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2025.

Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2025.

El presente convenio podrá ser impugnado por cualquiera de las partes tres meses antes de la fecha de su vencimiento.

D) PRESUPUESTO

El presupuesto para el año 2025 será de 20.0000 euros, con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334120, denominada "(E) Convenio con Loraldia. Elk. Txikia para impulsar la próxima edición de Loraldia-Iruñaldia" de los Presupuestos Generales de Navarra para 2025.

E) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR

Será subvencionable el desarrollo del proyecto Iruñaldia 2025, organizado por Loraldia Koop Elk. Txikia.

9 Nov: *Harreman. Gayarre*
10 Nov: *Liburu aurzpena. Elkar*
11 Nov: *Eduardo Valencia, Karriki*
12 Nov: *Lekeitiokoak, Katakarak*
13 Nov; *Bi zakur Gaztelu Plazan, Laba*
13 Nov: *Mursego, Condestable*
14 Nov: *Ikimilikiliklik, Baluarte*
14 Nov: *3001 odisea, Geltokin*
15 Nov: *Aiurri, Udaleko plazan*
15 Nov. *Hitzaurrea, Kalerik kale*
15 Nov: *Olaia Intziarte, Gayarre*

Las actividades subvencionables serán las siguientes:

- Elaboración del plan de comunicación
- Ejecución del plan de producción
- Dirección artística

- Kudeaketa plana
- Publizitate euskarriak eta diseinua
- Bideogintza
- Argazki erreportajea

- Ejecución del plan de gestión
- Soportes publicitarios y diseño
- Videocreación
- Reportaje fotográfico

F) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, 2025eko abenduaren 31 akitu baino lehen, aldez aurretik 2025eko azaroaren 30era arteko gastuen ordainketa-agiriak aurkeztuta. Azaroaren 30etik abenduaren 31 bitartean sortutako eta ordaindutako gastuak aldez aurretik ordaindu ahal izanen dira, eta dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da 2026ko otsailaren 28a baino lehen.

Bestela, soberan kobratutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da, gastuen kalkulu erreala eta horrek sortutako interesak oinarri hartuta. Edonola ere, ordainketaren zenbatekoa egindako benetako gastuen justifikazioaren arabera izango da.

G) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

Dirulaguntzaren justifikazioa, 11/2005 Foru Legeak, azaroaren 9koak, Dirulaguntzen gainekoak ezarritako epeetan eginen da ondoren zehazten diren dokumentuen bidez:

- a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztuko da, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta. Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2025eko azaroaren 30a izanen da.

F) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en un único plazo antes del 31 de diciembre de 2025, e incluirán, en concepto de anticipo, los gastos que se generen y abonen entre el 30 de noviembre y el 31 de diciembre de 2025 debiendo ser justificados estos antes del 28 de febrero de 2026.

En caso contrario, se iniciará un procedimiento de reintegro de la cantidad cobrada de más en base al cálculo real de gastos, más los intereses que ello hubiera generado. En todo caso, el importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada.

G) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones, se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

- a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra, y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, para el 30 de noviembre de 2025, para proceder al abono respectivo.

Halere, F oinarriarekin bat, 2026ko otsailaren 28rako bidali beharko da 2025eko azaroaren 30etik aurrera egindako jardueren justifikazioa.

- b) Langilearen kontratazio gastuak justifikatzeko entitateak kontratua, nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztu beharko ditu. Agiri horiekin batera ordainketa agiriak ere aurkeztuko dira.
- c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

Egindako gastutzat joko da, oro har, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31era bitarte sortutakoak eta fakturatutakoak eta abenduaren 31 baino lehen ordaindutakoak. Aurrekoa gorabehera, ez da eskatuko frogagiriak aurkezteko data baino lehen ordaindu ezin diren finantza, tributu eta gizarte-segurantzaren gastuak benetan ordainduak izatea, horren arrazoia baldin bada likidatzeko borondatezko aldia oraindik irekita ez egotea.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartzen dutelarik. Jarduera zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Loraldia Koop Elk. Txikiak, 2025eko azaroaren

Sin embargo, de acuerdo con la base F, la justificación de las actividades realizadas con posterioridad al 30 de noviembre de 2025 deberá hacerse para el 28 de febrero de 2026

- b) Para la justificación de los gastos de contratación del/de la trabajador/a, la entidad presentará el contrato, las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF. A estos documentos se les adjuntará también los correspondientes justificantes de pago.
- c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Con carácter general, se entenderá por gasto realizado el generado y facturado entre el 1 de enero de 2025 y el 31 de diciembre de 2025, y pagado antes del 31 de diciembre. No obstante, no se exigirá que los gastos financieros, tributarios y de seguridad social que no puedan abonarse con anterioridad a la fecha de presentación de los justificantes hayan sido pagados por causa de que el período voluntario de liquidación no esté aún abierto.

Las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos contemplando, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Loraldia Koop Elk. Txikia presentará a Euskarabidea-Instituto

30erako egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete ote diren ikuste aldera.

Baldin gastuen azkeneko justifikazioa ez bada onartutako aurrekontuaren guztirako zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez dela izan, ez da ulertuko onuradunak ez duela bete dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Dirulaguntzak ematen dituen organoak erabakiko du, nolahi ere, ea gastuen justifikazioa bateragarria den deialdiaren xedea benetan gauzatzearekin.

Deialdi honen baitan diruz laguntzen den helburua bete dela ulertzeko, egiaztatu egin behar da ezen proposatutako jarduera bere osotasunean gauzatu dela; horrela izan ezean, jasoko den zenbatekoa gutxitu egingen da, gauzatze mailarekiko modu proportzionalan gutxitu ere.

H) GARDENTASUNERAKO BETEBEHARRA

1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien % 20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro. Horretarako, III. eranskineko. erdua bete beharko dute, Gardentasun Betebeharrari buruzko Adierazpena, alegia.

Navarro del Euskera, para el 30 de noviembre de 2025, una memoria final del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos.

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, pero a pesar de ello se acredite por la entidad beneficiaria el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, no se considerará que incumple con la obligación de justificación de la subvención. El órgano concedente valorará, en todo caso, si la justificación de los gastos es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Se entenderá que el objeto de subvención de la convocatoria está cumplido cuando se haya acreditado, la ejecución de la totalidad de la actividad propuesta. En caso contrario, la cantidad a percibir se aminorará proporcionalmente a dicha ejecución.

H) OBLIGACIONES DE TRANSPARENCIA

1. Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros, para lo cual deberán cumplimentar el modelo de Declaración sobre la Obligación de Transparencia que figura en el Anexo III.

2. Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio-zifra.

b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra.

Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.

d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.

2. A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) La cifra de negocio del año anterior.

b) En su caso, la cifra de negocio aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos, deberán comunicar en el plazo de un mes contado desde la notificación de la resolución de concesión la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate hitzarmen honen II. eranskinean ageri den lehenengo estekari sakatuz aurkeztuko da, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du (II. eranskineko estekaren bidez).

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

I) EZ-BETETZEAK, ITZULKETAK ETA ARAU-HAUSTEAK

Ez-betetze arintzat joko dira irregulartasun formalei dagozkienak; halakoetan, dirua partez itzuli beharra egonen da, edo ordainketa partzialik ez egitea, ez-betetzearen muntaren arabera. Ez-betetze astuntzat joko dira, berriz, funtsezko kontuei dagozkienak; halakoetan, arau orokor gisa, dirua osorik itzuli beharko da, edo ez da deus ere ordainduko. Batean nahiz bestean berandutze-interesak eskatzen ahalko dira, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako kasuetan. Balorazio

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

La información señalada se presentará pinchando en el primer enlace que se indica en el Anexo II y se dirigirá a la unidad administrativa que gestiona la subvención.

En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos deberá presentar una declaración en tal sentido (a través del enlace del Anexo II).

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

I) INCUMPLIMIENTOS, REINTEGROS E INFRACCIONES

Se considerarán incumplimientos leves los referidos a irregularidades formales, en cuyo caso procederán reintegros o ausencia de abonos parciales proporcionales a dichos incumplimientos, e incumplimientos graves los referidos a cuestiones sustantivas, en cuyo caso, la regla general será el reintegro o ausencia de abono total, sin perjuicio en ambos casos de la exigencia de interés de demora en los supuestos establecidos en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre. La Comisión de Valoración podrá establecer

batzordeak mailakatzea egiteko komenigarriak iruditzen zaizkion irizpideak ezartzen ahalko ditu.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluaren xedatutakoa aplikatuko da.

J) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, dirulaguntzaren onespeneraren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez parte hartzen duela. Aipamen hau [Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala](#) arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

K) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

los criterios de graduación que estime oportunos.

En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el título IV de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

J) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el [símbolo oficial del Gobierno de Navarra](#) y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

K) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Iruñean, sinadura digitalaren egunean

En Pamplona a la fecha de la firma digital


Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo
Ekintzako eta Euskarako
kontseilaria /
La consejera de Memoria y
Convivencia, Acción Exterior y Euskera

Loraldia Koop. Elk Txikiaren kudeatzailea/
Coordinador Loraldia Koop. Elk. Txikia

Ana Olló Hualde



Mikeldi Uribe-Etxebarria



I. eranskina/ Anexo I

**2025eko aurrekontua /
Presupuesto de 2025**

Azalpena / Concepto	Zenbatekoa/ Cantidad
Zuzendaritza artistikoa / Dirección artística	3.000€
Produkzioa plana gauzatzea / Ejecución del plan de producción	3.000€
Komunikazio plana osatzea / Elaboración del plan de comunicación	3.000€
Publizitate euskarrien diseinua / Diseño de los soportes publicitarios	2.200€
Publizitate euskarrien produkzioa / Producción de materiales publicitarios	2.070€
Bideo laburpenak / Reportaje video	2.230€
Argazki erreportaiak / Reportaje fotográfico	1.500€
Kudeaketa plana / Gestión y coordinación del proyecto de organización	3.000€
OSOTARA / TOTAL	20.000 €

II. eranskina/ Anexo II

- [Gardentasun betebeharra](#)
- [Gardentasun betebeharra ez dutenek bete beharreko ziurtagiria aurkezteko](#)